

EH Bildu talde politikoa **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Joko patologikoari buruzko informazioa lortzeko eta joko patologikoa detektatu eta prebenitzeko jarraibideak direla eta, KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko urriaren 16an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2022an Eusko Jaurlaritzak 2016. urteko Jokoaren Erregelamendu Orokorra aldatzeko urratsak abiatu zituen, besteak beste, joko lokalen eta ikastetxeen arteko distantzia murrizteko. Hain zuzen ere, otsailean onartu zen 19/2022 DEKRETUAN, zeinaren bidez aldatzen den Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duena.

Horren arabera, joko-aretoen kopuruari muga jarri zaio: EAEn hiru kasino baino ezin izango dira egon -lurralde historikoko bat-, hipodromo bat, 14 bingo, 60 apustu-lokal eta 170 joko-areto. Era berean, ezingo da joko edo apustu aretorik egon ikastetxe arautuetatik 150 metro baino gutxiagoko eremuan, eta establezimenduen artean gutxienez 500 metroko distantzia egongo da.

Donostiaren kasuan, 2021ean hiriko apustu etxeen inguruko ikerketa bat egin zuen Haritik Hirira geografo taldeak. Hedabideetan zabaldu zituzten emaitzen arabera, apustu makinak dituzten 101 lokal (joko aretoak eta ostalaritzako lokalak) zeuden Donostian. Azterketan nabarmendu zutenez, haien kokapena ez da homogenea, eta errenta baxueneko auzoetan apustu etxeen metaketa handia dago. Ikerketaren arabera,

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

langabezia maila apalena duten lau auzoetan (Miramon-Zorroaga, Antigua, Ibaeta eta Aiete / 41.173 bizt.) kiroletako 14 apustu makina zeuden. Bestalde, langabezia maila handiena duten lau auzoetan (Loiola, Intxaurren, Altza eta Martutene / 43.704 bizt.) 27 apustu makina. Datu horien inguruko irakurketa ere egin zuen Haritik Hirira taldeak: “Datuek argi uzten dute apustu makinaren lokalizazio estrategikoak langileen egoera prekarioa eta horrek sortzen duen desesperazioa kapitalizatzeko helburua duela”.

Iraileko udal batzordeetan gaiaren inguruan galdetu genuenean, ordea, Udalak dituen datuen arabera, 50 apustu etxe daude hirian, Haritik Hirira egindako maparekin alderatuta diferentzia nabarmenarekin.

Kontuan izanda Haritik Hirira egindako azterketaren ondoren onartu zela dekretu berria, beharrezkoa iruditzen zaigu hirian dauden joko lokalen mapa bat izatea lokal horien eragin eremuan hezkuntza zentrorik dagoen jakiteko, eta haien artean zer distantzia dagoen zehazteko eta, oro har, dekretu berrian jasotakoa betetzen ari den edo ez aztertzeke.

Urriko batzordeetan honen inguruan delegatua interpelatu, adierazi du ez duela beharrezkoa ikusten hiriko apustu etxeen egungo egoera ezagutzea eta 2023-2027ko Adikzioak Prebenitzeko Tokiko Plana egokia dela bere horretan.

Ezin dugu ulertu nola diseinatu daitekeen prebentzio plan egoki bat, auzoz auzo diagnostikoa zein den jakin gabe eta errealitate bakoitzera egokitzen den esku-hartzea diseinatu gabe.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko joko lokalen eta apustu etxeen mapa eguneratua egin dezala, arriskua goiz detektatzeko eta prebenitzeko neurriak egungo errealitatera egokitu daitezzen.

Donostian, 2023ko urriaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia